

## OHIKO BATZAR OROKORRA / Zarautz, 2015eko azaroaren 7a

### 1. 2014ko azaroaren 8ko Beasainen egindako Ohiko Batzar Orokorraren akta

14 lagun elkartu dira, 9 IGEren ordezkari gisa, Batzar Orokorrean, 10:30ean, aurreikusitako gai zerrenda aztertzeko.

#### 1. 2014ko azaroaren 9ko Beasainen egindako Ohiko Batzar Orokorraren akta

Aho batez onartzen da.

#### 2. Zuzendaritza Batzordearen Kudeaketa Txostena eta Jarduera Proiektua.

2.1. Zuzendaritza Batzordearen jarduerak: Zuzendaritza Batzordeko 5 bilera egin dira, 27 zonaldeko bilerak eta 261 beste bilera batzuk.

2.2. IGEekin ZERIKUSIA DUTEN GAIK: hainbat informazioak eskeintzen dira: zerbitzu eskaintza, formazio jarduerak, EHIGeko gaiak eta beste batzuk.

2.3 2014-2015 IKASTURTERAKO EKINTZE PROIEKTUA: 2014-2015 ikasturteari begira aurreikusten diren lehentasunezko gaietara buruz informazioa ematen da. Aho batez onartzen dira.

#### 3. 2013/14 kontuen egoera eta 2014/15erako aurrekontua

2013-2014 ikasturteko diru sarrerak 295.480,32 € izan ziren eta gastuak 296.161,11 €. 680,79 € defizita.

2014-2015 ikasturterako 296.700 €roko balantzea orekatuta aurreikusten da.

#### 4. 2014-2015 ikasturterako kuotak

2014-2015 ikasturterako azken sei kurtsotan izan den kuota berdinarekin jarraitzea proposatzen da. Hau da 2,20 euro ikasle bakoitzeko.

#### 5. BAZKIDE BERRIAK ETA BAJAK

Honako IGE hauek elkartean sartzeko egindako eskaria onartzea da: Larraulgo MURGII IGEa, Soralueko KEIXETA IGEa eta Ezkio-Itxasoko GANBARA IGEa.

Honako IGE hauek elkartetik ateratzeko egindako eskaria onartzea da: Errenteriako GUNEBERRI eta Beasaingo INDARTZE.

#### 6. FEDERAZIOKO ESTATUTUAK EGUNERATZEA

Federazioko estatutuetan aldaketa hauek aho batez onartzen dira: 3, 10 eta 16. Artikuluetan eta azken buruko Xedapen berri bat gehitzea.

#### 7. GALDERAK ETA OHARRAK

EHIGE, SAREANE eta BIHE elkarteak "LOMCErik EZ Euskal Eskola Publikoan" adostutako dokumentua aukeztu egiten da.

Ez dagoenez beste aztergairik, 11.40etan amaitutzat eman da batzarra.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



## **2.- 2014-2015 ikasturteko Zuzendaritza Batzordearen Kudeaketa Txostena eta 2015-2016 ikasturterako Jarduera Proiektua.**

BAIKARAK 2014-2015 ikasturtean egindako lanaren funtsa Federazioko kide diren 155 IGEei informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzea izan da 2014-2015 ikasturtean ondoren aipatzen diren jarduera hauek bideratu dira, Zuzendaritza Batzordeak prestatu eta 2014ko azaroan 8an egindako Batzarrak onartutako Planaren arabera

### **2.1. Zuzendaritza Batzordearen jarduerak**

**Barne jarduerak:** Zuzendaritza Batzordeak ohiko bost bilera egin ditu.

**Zonaldeko bilerak:** 27 eskualde bilera egin dira, 2014ko irailean (%60 partehartzea), 2015eko urtarrilan (%34 partehartzea) eta 2015eko maiatzean (%48 partehartzea).

**Kanpo jarduerak:** 2015-2015 ikasturtean 252 bilera egin dira, honela banatuak:

- IGEekin: 119 bilera, horietako 27, eskualdekoak.
- Ehige Konfederazioa: 16 bilera.
- Eusko Jaurlaritza: 19 bilera
- Udalak/Foru Aldundia: 8 bilera
- Eskola Publikoaren Jaia: 18 bilera
- Jardunaldiak eta mintegiak: 14 bilera
- Euskadiko Eskola Kontseilua: 17 bilera
- Bestelakoak: 41 bilera

Nabarmentzeko datua da bilera horietako 68 Gipuzkoako lurraldetik kanpo egin direla.

### **2.2. IGEekin ZERIKUSIA DUTEN GAIAK:**

#### **2.2.1. Zerbitzu eskaintza**

2014-2015 ikasturtean, Federazioak honako zerbitzu hauek eskaini zizkien IGEei:

- **Kontratuen kudeaketa:** Batez beste, 300 kontratau inguru kudeatu ditugu hilean. IGE eta ikastetxeek kudeatzen dituzten zerbitzuen artean, honako hauek dira, nagusiki, langileak kontratatzeke premia dakartenak: zaintza, kiroltako koordinatzaileak, eskola orduz kanpoko jarduerak... 73 IGEak zerbitzu hau erabili dute eta BIDELAGUNA programarako (lehen PROA) 22 ikastetxe.
- **Liburuen salmenta:** 2014/2015 ikasturtean liburu eta eskola materialen erosketa kudeatu dugu, Gipuzkoako 35 ikastetxerentzat.
- **Aldizkaria:** 2014-2015 ikasturtean "Baikara" aldizkariaren 2 zenbaki kalaretu ditugu eta 28.000 ale elebiduneko argitalpena egiten da
- **Web orria:** 2014-2015 ikasturtearen hasieran, webgunea berri zen. Erabilerrazagoa izatea zen asmoa, eta, bide batez, gizarte sareetarako sarbidea ematea: facebook, twitter. 2015eko irailetik aurrera, "baikara.eus" domeinuan argitaratuta dago webgunea ([www.baikara.eus](http://www.baikara.eus)), baina oraindik indarrean jarraitzen du aurrekoak ere ([www.baikara.org](http://www.baikara.org)).
- **Buletin Digitala:** 2014-2015 ikasturtean, buletin digital bat sortu dugu, eta IGEen helbide elektronikora bidaltzen da aldian-aldian. Buletin horretan bildutako informazioak webgunean argitaratutako informazioari loturikoak izaten dira, oro har. Aurrerantzean, buletin digitala erabiliko da orain arte eta aldizkakotasun jakinik gabe dokumentu atxikiak ematez egiten ziren igorpenen ordez.
- **Matrikulazio kanpaina:** 2015eko otsailean egin zen. Baikararen publizitatea sartu da Gipuzkoako 24 ikastetxeren propagandan, Donostiako 18 ikastetxeen eta Debagoieneko Goieskolako 12 ikastetxeen propaganda bateratuan.
- **Boluntarioentzako aseguruua:** 2014-15 ikasturtean boluntarioentzako 87 aseguru egin dira. Boluntarioen kopurua jaitsi egin da beste ikasturte batzuekin alderatuta, horietako batzuei lan kontratuak egin zaizkielako, Araban egin zituzten lan ikuskaritzen ondorioz.
- **Ikasleentzako eskolako istripu aseguruua:** 2014-2015 ikasturtean, 8 ikastetxetako 1.332 ikaslek egin dute aseguru hori.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



#### - **Aholkularitza eta laguntza jarduerak.**

BAIKARAKO kide diren IGEentzako aholkularitzako eta laguntzako jarduera espezifikoak sartzen dira atal honetan. IGEek IGE gisa dituzten funtzioak betetzeko eta IGEek parte hartzen duten kudeaketa eta parte-hartze sektorialeko beste organo batzuetan duten zeregina betetzeko laguntza eta orientazio gisa har daitezke.

Hiru programa hartzen ditu arlo honek bere baitan: IGEen dinamizatorako egitaraua, Orientazio eta aholkularitza egitaraua eta Informazio egitaraua

2014/2015 ikasturtean, 2 IGE baino gehiagoren estatutuak aztertu eta aldaketa proposamenak bideratu ditugu. 2015-2016 ikasturtean, falta diren 2 IGEen estatutuak eguneratzeko asmoa dugu eta horrela eginkizun honekin bukatu.

#### - **Elkarteen Erregistroarekin eta diru laguntzen eskariarekin zerikusia duten gaiak.**

Hiru atal dira nabarmentzekoak:

- Elkarteen Erregistroan Zuzendaritza Batzordeen osaera egunera dezaten IGEekin egin beharreko kontzientziazio lana. Izapide horrek erraza dirudi, baina IGE askok huts egin ohi dute betebeharrak horretan. Izan ere, etengabeko aldaketak gertatu ohi dira Zuzendaritza Batzordearen osaeran (bi urtez behin osorik aldatu ohi dituzte, oro har), eta kide berriek ez dute jakiten eguneratze hori egin beharrekoa dela. Egoera horren ondorioz, Federazioak berak hartzen du aurrea auzi honetan eta berak egin ohi ditu Zuzendaritza Batzordeen osaera eguneratzeko izapideak eta gestioak, Elkarteen Erregistroaren aurrean. Hala, 2013/2014 ikasturtean zehar, Zuzendaritza Batzordeen 70 aldaketari buruzko izapideak egin genituen Elkarteen Erregistroan. Kopuru horrek agerian utzi du IGEek gero eta kontu handiagoa jartzen dutela izapide honi dagokionez: hain zuzen ere, ikasturte bakarrean IGEen %45ek erregistratu ditu Zuzendaritza Batzordean egindako aldaketak Elkarteen Erregistroan.

- IGEentzako diru-laguntzen kudeaketa eta izapideak, bereziki, Hezkuntza Sailak eta Donostiako Udalak banatzen dituzten laguntzei dagozkienak. 2015erako diru laguntzen eskariak 2015eko maiatza/ekainan atera ziren. BAIKARAK 141etik 120 laguntza eskari izapidetu ditu; hau, da, Federazioko kide diren IGE guztien %85enak.

- IGEek zerga betebeharrak eta, bereziki, Elkarteen zergari dagozkion betebeharrak betetzeko laguntza. IGEak, irabazi asmorik gabeko elkarteak izan arren, behartuta daude urtero Elkarteen Zergaren aitortpena egitera. Tradizioz, IGE gehienek ez zuten betebeharrak hori bete izan, baina horrek ez zuen inolako ondorioz izaten beren funtzionamenduan. Diru-laguntza publikoak banatzeko araua aldatu egin zuten, ordea, eta, harrezkero, gero eta gehiagotan gertatzen ari da erakunde pulikoek eta, batez ere, udalek, zergen ordainketa eguneratuta dagoela adierazten duen egiaztagiria aurkezteko baldintza ezartzea, laguntzak emateko. Eta, jakina, IGEek Elkarteen Zergaren aitortpena egiteko ohiturarik ez dutenez, zailasunak sortzen ari dira laguntza publikoak eskuratzeko garaian, orain artean ez bezala.

Ildo horretatik, Federazioa IGEei aholkularitza eskaintzen ari zaie, egin beharreko izapideak eginda, Foru Ogasunean eskariak aurkezteko. Gainera, 2008az geroztik, telematika bidez besterik ezin dira aurkeztu, eta horretarako, gako elektronikoa eskuratu beharra dago Foru Ogasunean. Orain arte 67 IGE tramitatu dute ordezkarietza elektronikoa, hau da Federazioko kide diren IGE guztien %43enak.

#### - **Hezkuntza arloko informazioa, dokumentazioa eta baliabideak.**

2001-2002 ikasturtetik hona, zabalik da Hezkuntza Informazio, Dokumentazio eta Baliabideen Zentroa. guraso, IGE eta Ikastetxe guztiei eskaintzen dizkie bere zerbitzuak.

Honako kontsulta baliabide hauek aurki ditzake erabiltzaileak bertan:

- Buletinak eta informazio ofiziala.
- Ekintzetarako materiala eta beste elkarte eta ikastetxe batzuenak.
- Balioetan oinarrituriko hezkuntza, prebentzioa...
- Heziketa behar bereziak.
- Beste ikastetxe batzuen informazioa eta estekak.
- Erakundeen informazioa.
- Hezkuntza zerbitzuei buruzko informazioa.
- Hezkuntza orientazioa eta orientazio profesionala.
- Elkarrekin eta baliabide interesgarriak.
- Bestelakoak.

Ikasturte honetan kontsulta ugari egin dituzte baliabideei eta dokumentazioari buruz, gehienak Federazioko kide diren IGEetako kideek; kontsulta horien %95 urrunekoak izan dira (telefonoz, e-mailez,...) ez bertatik bertarakoak.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



## 2.2.2 FORMAZIO JARDUERAK

BAIKARAK bere bazkideei eskaintzen dizkien formazio ekintzen koordinazioa formazio zerbitzuak gauzatzen du. Zerbitzu horrek bideratzen ditu gurasoentzako formazio ekintzak, eta ekintza bakoitzari formazio estilo jakin bat ematen saiatzen da, gurasoen eskaeraren araberako ezaugarri, helburu eta abarrak finkatuz. Mintegi, tailer edo lansaio modura antolatutako programak izan dira, hainbat iraupenetakoak.

Honako hauek dira eskainitako programak:

### 2.2.2.1 GURASO ESKOLAK ETA TAILERRAK

2014-2015 ikasturtean zehar, 143 formazio saio egin dira, hauetatik 113 gurasoekin, 10 Guraso Elkarteeekin, 18 ikastetxeekin eta beste 35 saio pertsonalak familiekin.

### 2.2.2.2 JANGELAKO BEGIRALEEN FORMAZIOA:

Eskola jangeletako begiraleak trebatzeko 5 ikastetxetan 18 saio egin dira.

### 2.2.2.3 ARLO EZ-ARAUTUAN KULTURARTEKO ANIZTASUNARI BURUZKO ESKU-HARTZEA BIDERATZEKO PLANA

Formazio hau ikasleentzako antolatua da, bereziki, eta honako programa hauek landu dira:

1. JOLASEAN ELKAR EZAGUTU: 4 saio egin dira.
2. JOLASEAN ERABAKIAK HARTU: 24 saio egin dira.
3. JOLASEAN EGINEZ ERRONKEI AURRE EGIN: 175 saio egin dira.
4. JOLASEAN ELKAR ONARTZEN DUGU: 45 saio egin dira.
5. JOLASEAN MUSIKAZ GOZATZEN DUGU: 6 saio egin dira.
6. JOLASEAN TALDEA DINAMIZATZEN DUGU: 39 saio egin dira
7. SARE SOZIALEKIN JOLASEAN: 75 saio egin dira
8. KULTUR ARTEAN ELKAR BIZI: saio bakarra.
9. GURASOekin JARRAIPEN PROGRAMA: 6 saio egin dira.
10. IRASKALEKIN BILERAK: 85 ordu

**Guztira: 375 saio**

## 2.3 BESTE GAI BATZUK.

- EHIGeko Zuzendaritza Batzordea: LOMCERI EZ kanpaina; Heziberri 2020 egitasmoa; Eskolaz kanpoko eta eskola kiroleko begireleen egoera; "EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO" Foroa, Jangelak, Eskola garraioa, Testu liburuak, Eskola Digitala, Laikotasuna, Matrikulazio Kanpaina, Eskola Txikiak,...

- LOMCeri buruzko informazio kanpaina: 2014-2015 ikasturtean Gipuzkoan zehar 18 hitzaldi eskaini dira, gehienak Guraso Elkartek antolatuta.

- GIPUZKOAKO PLANIFIKAZIOAN ALDAKETAK (EIBAR, IRUN, LASARTE)

- EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA

- HERRITAR ETORKINEN INTEGRAZIO SOZIALERAKO FOROAREN HEZKUNTZA BATZORDEA.

- GIPUZKOAKO KIROL KONTSEILUA.

- DONOSTIAKO KONTSEILU SOZIALA.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



## 2.4 2015-2016 IKASTURTERAKO EKINTZE PROIEKTUA

2015-2016 ikasturteari begira, honako lehentasun hauek aurreikusten dira BAIKARARI dagokion:

- LOMCE eta HEZIBERRI 2020 dekretuak ezartzeari eta horrek gure ikastetxeetan izango dituen ondorioei buruzko informazio kanpainari jarraipena ematea, EHIGEREkin koordinatuta.
- IGEen artean ikasle etorkinen eskolatzeari buruzko eztabaida sustatzea, eta eztabaida hoti gizarteratzea
- IGEen estatutuak eguneratzen amaitzea.
- Eskola Mapari jarraipena egiteko Gipuzkoako Lurraldean osatu den "Jarraipenerako Lurralde Batzordea"an parte hartzea, bereziki Eibar eta Lasarten.
- IGEentzako zerbitzuak: aholkularitza, informazioa, liburu salmenta, kontratuak, aseguruak, ordezkariak, informazio boletina bidalketa,..
- Gipuzkoako Foru Ogasunean aurrean IGEek izan beharreko ordezkariak fiskala izapidetzea eta zergen aitortpenak.
- "Baikara" aldizkaria: ikasturtean, bi zenbaki argitaratuko dira, azaroan eta apirilan.
- Aurrekontu murrizketak gorabehera, gaur egungo prestakuntza eskaintza zabaltzea
- Foroetako partaidetza: "Immigrazio Foroaren Hezkuntza Batzordearen Koordinazioa", "Euskadiko Eskola Kontseilua", "Donostiako Gizarte Kontseilua", "Gipuzkoako Kirol Kontseilua",..
- **EHIGE** Konfederazioko Zuzendaritzan Batzordean partehartzea eta bertan hartutako erabiak Gipuzkoan gauzatzea: 2015-2016 ikasturterako lehentasunak hauek izango dira:
  - "LOMCE eta Hezkuntza Saileko HEZIBERRI 2020 egitasmoa.
  - Eskola jangelak: zeharkako kudeaketa duten esperientzia pilotuen jarraipena egitea eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea baimena eman dezan beste ikastetxe batzuetara hedatzeko. Negoziatzen jarriatzea zuzeneko kudeaketa duten jangeletan hobekuntzak egiteko. Kudeaketarako programa informatiko berri bat ezartzearen ondorioz ikastetxeetan sortutako arazoak.
  - Testu liburuak mailegatzeko sistemaren jarraipena; bereziki, Hezkuntza Sailak eskolako materialak digitalizatzeko epe labur/ertainera begira ezartzeko asmoa duen neurriena.
  - Hezkuntza Sailak hezkuntza kudeaketako gastuak murrizteko hartutako neurrien jarraipena: irakasleen ordezkariak, eskola garraioaren ibilbidea, eskoletako eraikinetan egin beharreko inbertsioak, dirulaguntzetan
  - Beste gai batzuk: IGEen Jardunbide Egokien V. Lehiaketa antolatu; matrikulazio kanpaina, eskola mapa, laiktasuna,...
- Euskal Eskola Publikoaren 25. Jaia (ekainaren 5ean egingo da, Hendaian), eta Eskola Txikien Festa (ekainaren 12an izango da, Ikaztegietan). Hendaia jaiari dagokionez, eta aurtengo jaiaren berezitasunak kontuan hartuta (25. edizioa, eta Autonomia Erkidegotik kanpo egiten den lehena izatea, zeinak esan nahi baitu diru laguntza gutxiago jasoko direla, seguru asko), deialdi berezia egin nahi zaie IGEei, materiala saltzen lagun dezaten eta kanpaina antola dezaten familiak egun horretan jaiaren parte hartzera bultzatzeko.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



### **3.- 2014/15 KONTUEN EGOERA eta 2015/16rako AURREKONTUA**

#### **3.1 KONTUEN BALANTZEA 2014-09-01etik 2015-08-31ra (2014-15 IKASTURTEA)**

##### **DIRU SARRERAK**

• EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA	<b>14.221,75</b>
• IGEEN BAZKIDE KUOTAK	<b>104.339,40</b>
• IGEei ESKEINITAKO ZERBITZUAK	<b>1.977.157,37</b>
- IGEen lan kontratuen ordainketa	1.505.546,44
- IGEen liburu eta agenden ordainketa	455.065,69
- IGEen aseguruuen ordainketa	16.545,24
• EGITASMOAK	<b>67.882,95</b>
- Baikara aldiakaria	8.000,00
- Formazioa / Kulturantzitasuna	59.882,95
• JAIA 2015	<b>72.610,99</b>
- EHIGEk ordainduta	24.735,00
- Materialaren salmenta	47.875,99
• BESTE BATZUK	<b>185,94</b>
- Finantzak	185,94

***DIRU SARRERAK OROTARA 2.236.398,40***

##### **GASTUAK**

• PERTSONALEKO GASTUAK	<b>1.639.472,44</b>
- Federazioko langileak	153.339,33
- IGEen zerbitzurako langileak	1.477.512,60
- Prebentzioa / Formazioa	8.620,51
• EHIGE KONFEDFERAZIOA	<b>2.844,35</b>
• LIBURU ETA AGENDEN EROSKETA	<b>448.652,05</b>
• OROKORRAK	<b>68.752,48</b>
- Alokairuak eta kanonak	7.935,02
- Besteri eskatutako lanak	2.751,02
- Garraioak eta posta	2.033,53
- Aseguruak	19.256,11
- Publizitatea eta harremanak	2.727,10
- Hornidurak	6.969,12
- Ordezkaritza	11.492,33
- Bulegoko materiala	800,40
- Informatikako materiala	10.810,44
- Zergak	265,67
- Harpidetzak-Liburutegia	1.542,99
- Zerbitzuak eta fotokopiak	851,76
- Finantzak	447,79
- Konponketak	869,30
• JAIA 2015	<b>136.523,59</b>
- Antolakuntza	90.062,71
- Materiala	46.460,88
• EGITASMOAK	<b>84.794,26</b>
- Baikara aldiakaria	12.197,89
- Formazioa/Kulturantzitasuna	72.596,37

***GASTUAK OROTARA 2.381.039,17***



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



*Emitza negatiboa*

**144.640,77**

• **KOBRTZKEKO ZAIN**

**143.725,22**

- EUSKO JAURLARITZA 43.750,96
- EHIGE JAIA 65.327,71
- GURASO ELKARTEAK 34.646,55

**IKASTURTEKO AZKEN EMAITZA - DEFIZITA**

**915,55**

**3.2 AURREKONTUA 2015-09-1etik 2016-08-31ra (2015-2016 IKASTURTEA)**

**DIRU SARRERAK**

- Funtzionamendu gastuentzako Hezkuntza Saileko dirulaguntzak: 56.000,00
- FORMAZIO Egitasmorako dirulaguntzak: 15.900,00
  - Eusko Jaurlaritzako Inmigratio Zuzendaritza: 7.800,00
  - Donostiako Udala: 8.100,00
- BAIKARA ALDIZKARIA egitasmoaren diru-sarrerak: 9.000,00
  - Donostiako Udala: 8.000,00
  - Publizitatea: 1.000,00
- Bazkideen kuotak: 104.000,00
- Zerbitzuak emateagatik sarrerak: 2.047.050,00

**SARRERAK GUZTIRA : 2.231.950,00 €**

**GASTUAK**

- Pertsonal gastuak: 156.250,00
- IGEen zerbitzurako pertsonaleko gastuak: 1.480.000,00
- Liburu eta ajenden erosketa: 450.000,00
- Funtzionamendu gastuak: 57.500,00
- FORMAZIO egitasmoa: 75.700,00
- Baikara Aldizkaria: 12.500,00

**GASTUAK GUZTIRA: 2.231.950,00 €**



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



#### **4. 2015-2016 IKASTURTERAKO KUOTAK**

2015-2016 ikasturterako azken zortzi kurtsotan izan den kuota berdinarekin jarraitzea proposatzen da. Hau da 2,20 euro ikasle bakoitzeko.

#### **5. BAZKIDE BERRIAK ETA BAJAK**

- Donostiako ZUBIRI-MANTEO BHIko "ZEMORIA" Guraso Elkarteak BAIKARAN sartzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da.
- Donostiako AITOR IKASTOLA LHIko "LATXAGA" Guraso Elkarteak BAIKARAtik ateratzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da.

#### **6. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BERRITZEA**

#### **7. IKASLE ETORRI BERRIEN ESKOLARATZEA EGOERARI BURUZKO EZTABAIDA**

#### **8. GALDERAK ETA OHARRAK**